

26. GARAI BATEKO EMAKUMEEN BIZIMODUA

Orain iguala izanen da emakumeak eta nola mutilak eta ala neskatxak igual izanen zarete igual pixkatxoren bat pasatuak, de la raya, baina orduan zen eskas. Emakumeak, hantxe. Mezatatik atera, etxera. Bezperetara, bezperetara badakizu zer zen? Bezperetatik atera, etxera. Quieto. Juntatzen zen ondokoa eta hantxe solasean elkarrekin aritzen zen. Bestarik ez zuten deus ere, deus ere, deus ere izaten. Nire amak ez behinik behin. Eta, nire amak bezala, ondoko etxeok. Hantxe solas egin eta akabo.

Orduko emakumeak bizi ziren, gaixoak, nik askotan esaten dut eta, pena emanda, e? Nire ama zenak. Hori bizimodu egitekoa! Mundura etorri, eta akabo. Lan eta lan eta lan eta lan, eta horrelaxe, quieto hortxetik; ez Iruñera, inora ere ez. Umeak izaten zituzten denboran, etxeetan izaten zituzten. Badakizu zuk hori. Arropa erosi behar bazuten, etortzen ziren, guk (?) esaten genien, arropak hartu bizkarrean, zera, eta maindire batzuekin lotu, eta beste batzuk etortzen ziren mandoarekin ere bai eta (?). Haiek etortzen ziren eta haiei erosten zizkieten arropak. Ya está.

Akabo.

Akabo. Gu mutiko zaharrak izanen ginen eta nik hemen ikusi nituenak, gero beste emakume batzuk, holaxeko tripekin, eta, denak haurra izateko, eta, hantxe ari lurrean, jorran eta fuego! Ja! Nola? Bigoa hartu eta belarrari buelta ematen, egun guztian hantxe. Eta, gero sardea hartu eta botatzen, ganbaran eta, hara, dena. Dena zen hola. Bu! Orduan gaixoak, ikusten zituzten emakumeek gorriak eta beltzak, bai! Ez orain bezalako dutxak eta orain bezalako gauzarik ez! Ohatzera joateko hankak pertza batean sartu, ur beroa, ura epel egin, han garbitu eta...

Eta listo.

Hori da. Zer kanbioa, e?

Hori zen ohitura? Ohatzera sartu...

Bai, bai, bai, bai. Gure ama zenak beti hankak garbitzen zituen ohatzean sartzeko. Bai, bai, hori beti, beti, beti. Paratu ur epela eta hotza, bien nahasketa egin, eta epel-epela jartzen zenean, hankak garbitu, ederki lehortu eta aurpegia pixka bat garbitu eta ohatzera.

Eta listo. Hori zen dena...

Eta listo. Hori zen dena. Ba! Eta gero, larunbatetan eta, ur epelarekin eta ezkutuan, ezkutuan beti, gorputz guztia garbitu eta, holaxe. Ez orain bezala, ez, dutxa bat hemen eta dutxa bat hor eta... e?